

KAROBIAK, karea lortzeko labeak

Miguel Mari Elosegi*

Laborantzako lurren kalitatea hobetzen zuten kare
diziaren erabilera oso hedatuta egon zen gure
lurraldean mende honen erdialdera arte. Karobiak
kararra kaskaduz kare bizia egiteko erabiltzen
ziren labe bereziak ziren.

Nekazaritzarako erabiltzen ziren lurren tratamendu eta korrekziorako kare biziak dituen ahalmenak

XVIII. mendearen hasieran ezagutu ziren. Julio Caro Barojak, *Etnografía Histórica de Navarra* liburuan, Juan de Armasa Beintza-Labaiengo erretorearen testigantza jaso zuen eta testigantza horren arabera, karearen aurkikuntza Lekunberrin eman zen. Horrela, 1705-1709 urteetan Nafarroako mendialdeko gosetean, erre eta hauts bihurturiko kareak berez hotza zen lurra berotu egiten zuela ikusi zuten.

Urte horietatik aurrera eta neurri handi batean artoaren hedapenarekin batera, karobi edo kisulabeak Euskal Herri osora hedatu ziren. Bi mende eta erdiz erabili ziren, mende honetan zehar gutxiagotzen joan eta 1950 inguruan erabat desagertu ziren arte.

Zoritxarrez, gaur egun karobi gehienak hondatuta daude eta gutxi dira beren funtzionamenduz taxuzko azalpenik eman dezaketen pertsonak.

Nekazaritzarako erabiltzen ziren lurren tratamendu eta korrekziorako kare biziak dituen ahalmenak XVIII. mendearen hasieran ezagutu ziren. Kararra pilatzen.

J.M. Lekurea



Mota ezberdinetako karobiak

Azken urteotan hiru karobi piztu dituen Jose Sagastibeltza Leitzako karegileak azaldu zigunez, bi motako karobiak zeuden gure artean. Zakarrezkoak izenaz ezagutzen direnak zaharrenak ziren eta sua jasaten zuten harrizko labeak ziren. Horietan, kararrizko bobeda batean kararria pilatzen zen eta azpian haritz- eta pago-egurra erretzen zen gau eta

egunez. Labearen azpialdean, sua pizteko ahoa zegoen eta bigarren zulo batek airearen sarrera erregulatzen zuen. Egosketa sei bat egunen buruan amaitzen zenean, sua itzali egiten zen eta pare bat egunez hozten utzi ondoren, kare bizia ateratzen zen. Arragoa izeneko beste karobimotak etengabeko prozesua zuen. Harria eta erregaia geruzak gainetik kargatzen ziren eta karea azpialdetik ateratzen zen metalezko sare baten bidez.

J.M. Lekuona



Kararria egosteko egiten zen sua, haritz- zein pago-egurrez egiten zen.

Kare bizia lortzeko egin behar den lehenengotako lana, kararria biltzea eta karobira eramatea da.

J.M. Lekuona



J.M. Lekuona



Karegileak kea behatuz jakin zezakeen egosketa zein urratsetan zegoen. Kearen kolore zuriak temperatura behar baino baxuagoa zela adierazten zuen eta urdinskak ondo berotzen ari zela.

Arragoen prozesua

Arragoen barruko zilindroak 5 metro inguruko altuera eta 1,2 metroko diametroa izaten zuten. Lanak erraztearren, goiko eta beheko ahoetara heltzea errazten zuten aldapetan eraikitzen ziren. Labea piztu eta berotzen hasteko, guztiz lehortutako ote eta erratzak erabiltzen ziren hiru orduz. Gero haritz-etzalak gehitzen ziren beste 2-3 orduz eta





araberakoa zen, prozesua jarraia izanik, karea atera ahala labea erregaiez betetzen baitzen. Piztu ondorengo 24-50 ordotara labearen tenperatura 1.000 C inguruan egonkortu egiten zen eta ondoren, prozesua jarraian gertatzen zen. Ondo egositako karea berehala hozten da eta estalpe batean gordetzen zen, alorretan zabaltzera eraman arte. Zati bat karesnea egiteko gordetzen zen eta baserrietako hormak zuritzeko erabiltzen zen nagusiki.

Karobiak 7-15 egun ematen zituen piztuta, hornitu behar zituen baserrien arabera. Egun horietan karobiaren arduraduna eta bere laguntzaileek gogotik egiten zuten lan eta lanak bukatutakoan, hainbat neke eta izerdien ondoren, afari eder batek ematen zion bukaera lan bitxi honi.



♦ Biologoa

jarraian, egur lodiagoak erabiltzen has zitekeen.

Karegileak kea behatuz jakin zezakeen egosketa zein urratsetan zegoen. Kearen kolore zuria kanpoko tenperatura behar baino baxuagoa zela adierazten zuen eta urdinskak ondo berotzen ari zela. Labearen azpialdeko partean zeuden zuloek airearen sarrera erregulatzen zuten.

Labea ongi berotu ondoren, sagarraren tamainako kararrizko geruza gehitzen zen eta egurrezko eta kararrizko geruzak txandakatuz gehitzen ziren.

Piztu eta 10 ordotara, saretik lehen kare pusketak erortzen hasten ziren, baina irregularki erretzen zirenez, labera sartzen ziren berriro. Bi ordotik behin, harrizko eta haritz-, pago-, eta gaztain-ipurdis egindako egurrez-

ko geruza alternoz bete behar zen labea.

Erabili beharreko harri-kantitatea lortu nahi zen kare-kantitatearen

Karobiak 7-15 egun ematen zituen piztuta, hornitu behar zituen baserrien arabera. Egun horietan karobiaren arduraduna eta bere laguntzaileek gogotik egiten zuten lan.

J.M. Leizaola

